

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

GIZA BALIABIDEEN SAILA

2021eko urriaren 8an egindako ohiko bilkuran, Gasteizko Udaleko udaltzaingo zerbitzuko agenterako (LANKO: 8013) enplegu-eskaintza publikoa beste 19 lanposturekin handitzea onetsi zuen Tokiko Gobernu Batzarrak

Gasteizko Udalak agintaldi honetarako dituen helburuen artean, Aurrekontu Orokorren Legeak baimendutako enplegu-eskaintza publikoa deitzea proposatzen du, udal egitura sendotzeko neurri gisa.

Une honetan, udaltzaingoko 11 agente lanpostu betetzeko enplegu-eskaintza publikorako deialdi bateratua gauzatzen ari da –Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko azaroaren 27an onetsi eta 2020ko abenduaren 2ko ALHAOn argitaratua-. Eskaintza onetsi zenetik orain arte hainbat lanpostu hutsik geratu dira udalaren lanpostuen zerrendan, erretiroak eta behin betiko bajak direla eta.

Proposatzen den handitzea -19 lanpostu- aplikagarri zaizkion berritze-tasak ezarritako mugen barruan dago (69,5 lanpostu), eta, halaber, eskaintza publiko honen lehen oinarrian jasota dago handitzeko aukera (2021eko urtarrilaren 11ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, (5. zk, argitaratua).

Era berean, Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 37.2 artikulua xedatutakoarekin bat etorritik, negoziatio-bilerak egin dira udaleko langileen batzordearekin, 2021eko irailaren 29an, egoki iriztitako alegazioak aurkezterik izan zezaten.

Kontu-hartzailetza Nagusiaren txostena eta txosten ekonomikoa handitzearen aldekoak dira.

Azkenik, eta deialdien argitalpenei dagokienez, deialdiak eta oinarriak BOEn argitaratuko dira, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuak – Estatuko Administrazio orokorrean sartzeko eta lanpostuak hornitu eta funtzionario zibilen lanbide-sustapenerako araudi orokorra onartzen duenak – 15. artikuluan xedatzen duenari jarraiki.

6/1989 Legeak 24. artikuluan xedatzen duenez, “enplegu-eskaintzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, eta, foru-aldundi edo toki-korporazioenak badira, dagoen Lurralde Historikoko Aldizkarian. Azken kasu honetan, EHAAn ere argitaratu beharko da eskaintzen laburpen bat”.

Beraz, aurreko paragrafoetan adierazitakoa kontuan izanik, eta Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak –abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatua– 127. artikuluan aintortzen dizkidan eskumenez baliatuz, eta 2019ko ekainaren 21eko erabakiaren bitartez Giza Baliabideen arloko zinegotziaren esku utzitako aginpidea betez, Giza Baliabideen Arloko zinegotzi ordezkariak erabaki proposamen hau aurkezten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

Erabaki-proposamena

Lehenengoa: Gasteizko Udaleko udaltzaingo zerbitzuko agenterako enplegu-eskaintza publikoa beste 19 lanposturekin handitzea (LANKO: 8013) Honela:

LANPOSTUAREN KODEA	LANPOSTUAREN DESKRIBAPENA	MATRIKULA	EHUNEKO	HE	DERRIGORTASUN-DATA
8013	Udaltzaingoko agentea	400	100	2	
8013	Udaltzaingoko agentea	404	100	2	
8013	Udaltzaingoko agentea	405	100	2	
8013	Udaltzaingoko agentea	421	100	2	

LANPOSTUAREN KODEA	LANPOSTUAREN DESKRIBAPENA	MATRIKULA	EHUNEKO	HE	DERRIGORTASUN-DATA
8013	Udaltzaingoko agentea	422	100	2	
8013	Udaltzaingoko agentea	423	100	2	
8013	Udaltzaingoko agentea	454	100	2	
8013	Udaltzaingoko agentea	459	100	2	
8013	Udaltzaingoko agentea	484	100	2	
8013	Udaltzaingoko agentea	498	100	2	2013/12/20
8013	Udaltzaingoko agentea	504	100	2	
8013	Udaltzaingoko agentea	526	100	2	
8013	Udaltzaingoko agentea	546	100	2	
8013	Udaltzaingoko agentea	549	100	2	
8013	Udaltzaingoko agentea	579	100	2	
8013	Udaltzaingoko agentea	7132	100	2	
8013	Udaltzaingoko agentea	7886	100	2	
8013	Udaltzaingoko agentea	8630	100	2	
8013	Udaltzaingoko agentea	8664	100	2	
GUZTIRA, 19					

Bigarrena: BOEn, EHAAn eta ALHAOn argitaratzea lan-eskaintza publikoaren handitze hau.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko irailaren 30ean

Giza Baliabideen Saileko zinegotzi ordezkaria
IÑAKI GURTUBAI ARTETXE